

Don Jose Erasun (1821-1894)

TOMAS OTXANDORENA TELLETXEA*

Saldias, Nafarroako ipar-mendebaldeko udala, Basaburu Txiki edo Basaburu Baxa-n dago -ikus Beintza-Labaiengo elizako bataiatuen 2.liburua, 36 atzetik orrialdea-. Mugak hauek dira: iparraldean eta ekialdean Beintza-Labaien; mendebaldean, Eratsun; eta hegoaldean, Basaburu Goia. Garaiera, 554 m., eta biztanleak 160 dira -saldiastrak-. Ezkurra ibaia igarotzen da Saldiasko dermiotik. Euskara, goi-nafarrera edo ipar-nafarrera garaia da (ik. *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*). Bertako euskaldunak % 98 dira.

Aipagarri dira San Joan Bataiatzailearen eliza, Ama Birjina Doloretakoa, San Anton eta Santa Barbararen ermita, XVIII mendeko udaletxea eta Ezkurra ibaiaren gaineko Erdi Aroko zubia (*Lur Hiztegi Entziklopedikoa*).

Juan Jose Erasun Mutuberria.

1821 urteko apirilaren 13.ean Saldiasko Apezenan jaio zen eta hurrengo egunean izan zen bataiatua herriko San Joan Bautistaren elizan. Haren gurasoak Juan Jose Erasun eta Maria Engrazia Mutuberria ziren, biok herriko seme-alaba, Apezeneko nagusi-etxeokandrea:

«En el lugar de Saldías, y su Iglesia Parroquial de San Juan Bautista día catorce de Abril de mil ochocientos veinte y uno, yo el infrascrito Rector de la misma baucité a Juan Jph de Erasun (que nació víspera a las tres de la tarde) hijo legítimo de Juan Jph. y de María Engracia de Mutuverria naturales y vecinos de este dueños de la casa de Apecenea: Abuelos paternos Juan Bautista de Erasun y María de Micheo ambos naturales y dueños de la misma casa: maternos Juan Martín de mutuverria Natural y vecino del mismo y Maria Jpha. de Garvisso natural de la villa de Labayen: Fueron padrinos Juan Jph. de Erasun menor natural y residente en este y María Engracia de Mutuverria así bien natural de este mencionado lugar y vecina de la referida villa de Labayen; les advertí el parentesco espiritual y demás que ordena el Ritual romano, y para que conste firmo en dicho día, mes y año ut supra. Don Martín Antonio de Baleztena».

(Arch. Par. Saldías. Bat. 3. lib., 5.zn., 3b or.).

* (Saldias eta Labaiengo Erretorea)

1831 urteko irailaren 21.etan hartu zuen sendotzako sakramentua Iruñeko Jaun Apezpiku Don Sebero Andrianiren eskutik.

Iruñeko Seminario Kontziliarrean egin zituen apaiz ikasketak, lau urte Gramatika, hiru Filosofia eta beste lau Teologia. Espartza-Galar herrian egin zituen Latinezko Gramatikarenak, hango bikario zen Don Jose Lizasorekin. Teologia Moralekoak Berriogoitin burutu zituen 1842an, bost hilabetez ihardun zuela egiteko horretan hango Bikario zen Don Juan Bernardo Etxeberriarekin, apaiz-etxean bertan. Erasuni buruz garbitasunak ematerakoan, hauxe dio bere irakasleak: «Ikasketak protxu haundiarekin egin ditu, zintzo portatuz, ez eginez deus behar ez denik ez politika gauzetan, ez eta bizitzako gorabeheretan ere».

Tontsura edo koroa egitea eskatu zuenean 23 urte zituen. Bere eskaria 1844 urteko azaroaren 22.ean egin izan zen, Santo Tomasetako tenporetan ile ohikunea hartzeko asmoarekin. Duintasun garbia eta akatsik gabea zela jakiteko, legezko pregoiak eta azterketak Espartza-Galar herrian, Iruñeko San Joan Bautista parrokian eta Saldias bere sorterrian eginak izan zitezen agindu zuen Iruñeko Gotzai Jaunak. Hiru parrokiek onartzen zutelako agiriak idatzi zituzten eta Gotzaitegira bidaldu. Denbora berean, azaroaren 23.ean tontsura hartzeko azterketa egin behar izan zuen, eta gero goian aipatutako garaian tontsura erritua hartu zuen.

Apaiz egin baino ia urte batez lehenago, 1846ko apirilaren 30.ean, hartu zuen Doneztebeko benepizitu kargua. 1846an, bakoitza bere denboran, eskatu zituen ordena sakratuak, eta gai zela ikusi ondoren, eman zizkioten behoko mailako ordena txikiak, eta goiko mailako ordena sakratuak: diakonoorde edo epistola eta diakono eta ebanjelioa. Diakono ordenaren ariketa edo praktika Iruñeko San Nikolas elizan ihardun zuen, 1847ko otsailaren 25.ean bertako Bikario Don Geronimo Alfonsok dioenez.

Diakono zelarik, 1847ko otsailaren 19.ean aurkeztu zion Iruñeko Gotzai Jaun Sebero Andriani goresgarriari apaizteko eta mezarako ordenatua izateko eskabidea, idazkiarekin batera azalduz bere agiriak eta nahi zuela apaiz egin Eliza Ama serbitzeko. Apaizgoa hartzeko azterketak Iruñean egin zituen 1847ko otsailaren 25.ean, eta ongi gaingitu zituen. Apaizgoa hartzeko gai zela miatzeko berriz ere etorri ziren pregoiak eta lekukoen arteko azterketak. Informe onak eman zituzten naiz Iruñetik nahiz Saldiaстик. Garai hartan Don Juan Jose Apeztegia zen Saldiasko erretorea. 1847ko martxoaren 25.ean Iruñeko Gotzaitegian Gotzai-gutun Baimenak hartu zituen Kalahorrako Gotzaiarentzat honek apaiztu zezan. Kalahorrako Gotzai-jauregiko kaperan izan zen apaiztua 1847 urteko apirilaren 6.ean. Iruñeko Elizbarrutiko Artxi-botik hartuak izan dira datuok.

SALDIASKO ERRETOREA

Diru-kontutako 1. liburuan, 61. orrialdean hau dago idatzirik: «Jose Erasun apaizak, Saldiasko San Joan Bautista elizako erretoreak, 1857ko uztailearen 25.ean hartu zuen bere parrokiaren erretoregoa», kargu horretan 37 urtez, 3 hilabetez eta 21 egunez egon zela. Denbora horretan 496 haur bataiatu zituen eta horien bataio-agiriak Bataiatuen liburuan idatzi; 110 bikote fedatu zituen eta horien eztei-agiriak Ezkonduen liburuan sartu; eta 314 hil-

dakoren elizkizunak ospatu, horien gorpuak ehortzi eta Hildakoen liburuan zegozkien agiriak ipini.

Bost Gotzai Bisita izan zituen. Berak bitan bere eliztarrekin Donezteberaino joan behar izan zuen: Lehenengoa 1869ko ekainaren 18.enean izan zen, eta Don Pedro Zirilo Uriz Labairu Gotzaiak Saldiasko 168 mutiko eta neskato konfirmatu zituen; bigarrena 1881eko abuztuaren 30.ean izan zen, eta Don Jose Oliver Hurtado Gotzaiak, Saldiasko 34 mutiko eta neskato konfirmatu zituen. Hirugarren Artzain Bisita jasotzera Ezkurreraino ibil-aldia egin behar izan zuen 1877ko abuztuaren 18.ean, eta han aipatu berria dugun Gotzaiak Saldiasko 86 mutiko eta neskato konfirmatu zituen. Laugarren Artzain Ikustaldia Saldiasen bertan izan zen 1888ko maiatzaren 3.ean, eta Don Antonio Ruiz-Cabal Rodríguez Gotzaiak 68 mutiko eta neskato konfirmatu zituen. Azkeneko Ikustaldia Zubietako elizan egin zien Saldiasko Erretore eta fededunei Ruiz-Cabalek, Sendotzako Sakramentua emanaz Saldiasko 47 neskato eta mutikoei beste askoren artean 1892 urtean. Datu guztiok parrokiako liburuetatik daude hartuak.

Erasun Erretorea 1894 urteko azaroaren 11.ean bere eliztarren artean hil zen, 74 urte zituela. Testamentua 1894ko martxoaren 8.ean Leitzeko eskribau Don Migel Eizagirreraren aurrean egin zuen. Hil eta biharamunean haren gorputza ehortzi zuten herriko kanposantuan berak beretzat hil aurretik egindako hilobian, bere animaren alde eliz-funtzioak herriko elizan bere parrokiaren ospatu ondorean. Hona bere hil-agiria:

«Día once de Noviembre de mil ochocientos noventa y cuatro de doce y media á una de la tarde murió a la edad de setenta y cuatro años en este lugar de saldías don José Erasun Párroco propio del indicado lugar y natural del mismo lugar. Testó con mandas pias en este lugar de Saldías a ocho de Marzo de mil ochocientos noventa y cuatro ante Don Miguel Eizaguirre Notario público del Ilustre Colégio territorial de Pamplona con residencia en la villa de Leiza, nombrando por Albaceas a los dos Señores Curas Párrocos que lo sean de las Iglesias de Erasun y Labayen al tiempo de su fallecimiento. Y al siguiente día después de los funerales en la parroquia fué su cadáver conducido al campo santo. Y firme: Don José María Arrechea Párroco interino».

(Arch. Par. Saldías, Dif. 1-2 lib., 6.zn., 74b or.).

Hil zen urtean hiru ezkila berri eginarazi zituen, agian hil baino askoz ere lehenago ez. Ezkilak ermita ondoan bertan urtu eta egin omen zituzten. Egiten ikusi zituenak esan zigulako dakigu guk. Mekoleneko Migel zenak, mutiko koxkorra zela, ikusi zuen lan hori egiten. Hiru ezkila hauen kostarioa 11.468 erreal izan ziren. Hiru ezkila kizmihi, 215 erreal, pezetan 161 pezeta eta 60 zentimo. Ezkilgile maisuak lau egun pasa zituen, eta eguneko 16 pezeta kobratzen zuen, denetara 256 erreal. Ezkilak pisatzea ere 16 erreal, balcoitza lau pezeta kosta zen. Haren kabezalerok testamentua irakurtzerakoan, jakin zuten ermitako ezkila bere diruarekin pagatzea erabaki zuela. Halaxe egin zuten eta 1943 erreal eta 60 zentimo herriko erretorari eman zizkioten. Ermitako ezkilak Santa Barbararen izena daramaki eta santa honeri dago sagaratua -Santa Barbara ermitako patronarik nagusia delako ote?-.

Don Jose etxe oneko semea zen eta gauzak ongi egitea gustatzen zitzaiona. Horrela gauza on asko egin zituen parrokiaren onean. Testamentuan ere utzi zuen dirua 37 urtez serbitu zuen parrokia elizarentzat. Haren kabezale-

rok lau txandatan entregatu zuten eta denetara 13.797 erreal ziren, kopuru hori pezetan 3.141 pezeta zela.

EUSKALTZALEA

Asociación Euskara elkarte 1878 urtean sortu zen Iruñean Iturralde eta Suit, Arturo Campi3n esta bestek bultzaturik. Damaso Legaz, elkarteko kide ospetsuak dioskunez, Jose Erasun ere kide zen 1881ean. Antonio Maria Claretren *Kristau Ikasbidea* eta Alfonso Mara Ligorioren lan baten itzulpenak aurkeztu zizkion elkarteari eta honen oniritzia eta zorionak lortu zituen itzultzaileak, Legazek jakinarazten digunez. Beste itzulpenik ere badu, hots, *Orreaga* baladarena. Gainera, erdaraz 1881 urtean *Revista Euskara*-n euskal ortografiari buruzko lan bat eman zuen. Lau dira, beraz, ezagutzen ditugun bere lanak, denak euskararen arloan. Aurkez ditzagun banan-banan lan horiek.

1. *Orreaga* da bere lehen lana. Campi3n-en *Orreaga* baladaren itzulpena da: «Version al dialecto vulgar de Saldías, valle de Basaburua Menor (Nabarra), por D. José Erasun». Itzultzailearen ortografia gorde du Campi3n-ek, hark arlo honetan dituen iritziak errespetatuz. Karlomano Enperadorearen kontra euskaldunek izan zuten borrokaren berri ematen da, eta 1880 urtean agertu zen, besteak beste, Nafarroako 18 azpieuskalkitara itzulirik.

2. Antonio Maria Claret. «*Doctrina Cristavaren Catecismo*... Nauarraco sacerdote batác (sic -á-) uscarara viurtua... Bescansaren Moldizteian, 1881.rrren urtean». 1880 urteko abenduaren 31.ean aurkeztzen dio *Asociacion Euskara*-ri, eta haren kide dela aitortzen du: «la Asociación á que pertenece» (7.orr.). Goian esan bezala, Legaz-ek ezagutarazten dio elkartearen zorion eta oniritzia, baina eransten du gauza batean ez direla bat etortzen elkarrekin, hots, ortografiari buruz ematen dituen iritziekin (3.orr.). Iruñean 1881eko ekainaren 8.ean gertatzen da hori.

Erasunek 5-7 orr.etan, *Observaciones* izenburuaren pean arau ortografiakoak azaltzen ditu, gaztelaniaren erregelak defendatzen dituela bortizki. Legaz-ek egin zuen liburuaren zentsura eta ontzat eman zuen itzulpena sinesmen eta ohitura onen aldetik 1881eko otsailaren 22.ean, bera garai hartan Kontzilio Apaizgaitegiko erretore zela (4.orr.).

3. Claret-en lanaren itzulpenarekin batera, aurkeztu zuen beste itzulpen bat ere, Legaz-ek dioenez (3.orr.) eta hau zen: «Práctica breve para hacer la oración mental, tomada de S. Alfonso María Ligorio». Ez dakigu, ordea, lan hori argitaratua izan zenik.

4. Saldias eta 1881eko ekainaren 21.a data daraman gutun luze batean, *Revista Euskara*-n (1881, IV, 216-219 orr. etan) argia ikusi zuenean eta erdaraz idatzia dagoenean, ez *b*-baizik eta *v*-ipini behar dela «vascongadas», «vascongado», «vascuence» eta horietatik eratorritako hitzetan defendatzen du, lehen esan dugun bezala, erdal ortografia jarraitzen duela. Ikus dezagun zer dioen: «Yo que he nacido en país vascongado, he vivido y vivo en país vascongado, y me he ejercitado 33 años en traducir del castellano y latin al vascuence -non daude latinetik egindako itzulpen horiek?-, hallo se necesitan para escribir cabalmente las palabras de este idioma, 28 letras, que son las siguientes». Eta gaztelaniazkoak aipatzen ditu, besteren bat ere eransten duela (217 orr.).

Hau dugu Jose Erasun, Saldiasko seme eta bertako erretore euskaltzale sutsua. Ez da harritzekoa mendi artean kokaturik dagoen eta berriki arte bide txar batzuek munduarekin lotzen zuten herriko parrokia etxean *Revista Euskara*-ren aleak aurkitu ahal izatea gure egunak arte.

ERANSKINA
ORREAGA

VERSIÓN AL DIALECTO VULGAR DE SALDÍAS, VALLE DE
BASABURUA MENOR, (NABARRA), POR DON JOSÉ ERASUN

I.

Gauerdia. Erregue Carlomano Auritz-berrin dago bere ejerzituarequin. Ceiru illunin ezta agueri ez illarguiric eta ez izarric: urruti suzco gar aundiac diztaiatcen dute mendiartean; Fransesac cantari daude errian; Altabizcarga inguruetan aditcen dire otsoaren izugarrizko auriac, eta Euscaldunac zorrozten ttuzte bittartin beren tirarmac ta aizcorac Ibañetaco arraitcetan.

II.

Quezcax betea Carlomanoc loric eciñ eguiñ du; oatcearen ondoan bere pajecho batec leitcen dio amorezco contu bat: urrutissiago, Erroldan ingarsuac garbitcen du bere Durandarte ezpata famatua, eta Turpin arzobispo onac errezatcen dio Jaungoicoaren Ama santari.

III.

Pajecho nerea, -dio Erregue Carlomanoc; -zer dá gauazco issiltasuna austen duen arroittu ori? -Jauna, -erantzuten dio pajeac; -Iratiko, itsasoa baño aundiago den oianaren ostoc dire, aiceac muittuac. -A! gazte mattea, eriotzaren negarra iduri du, eta nere viotza beldur da.

IV.

Gaua oso illuna da. Ez illarguiric eta ez izarric navari da ceiruetan; urruti suzco gar aundiac diztaiatcen dute mendiartean; Fransesac lo daude Auritz-berrin; Altabizcarga inguruetan otsuac auriz daude, eta Euscaldunac zorrozten ttuzte beren tirarmac eta aizcorac Ibañetaco arraitzetan.

V.

Zer dá arroitu ori? -galdetcen du verriz Carlomanoc, eta pajeac, loaz menduac, erantzuten ez dio. -Jauna, -dio Erroldan ingarsuac; -mendico arrottua da, Andresaroco ar-taldeen marracac dire. -Inciri bat iduri du, -erantzuten dú Erregue Fransesac. -Eguia da, Jauna, -dio Erroldanec; -erri onec negar eguitten du gutaz oroitcen denean.

VI.

Quezcarequin Carlomanoc eciñ du loric eguiñ: lurra eta ceirua arguiricgabe (sic) daude; otsoac auriz daude Altabizcarrin; Euscaldunen aizcorac eta tirarmac diztaiatcen dute Ibañetaco aritzartean.

VII.

Ah! -esaten du Carlomanoc penaz. -Eciñ loric eguiñ dut: sucarrac erretcen nu. Zer da arroittu ori? -Eta Erroldanec, loaz menduac, eranzun ez cion. -Jauna, -dio Turpin onac: -erreza zazu, erreza zazu nerequin. Arroittua au Euscal-Errico guerra-cantu da, eta gure aomenaren azquenaco eguna gaur dá.

VIII.

Eguzguiac arguitcen ttu mendiac. Garaitua Carlomano iés doa, «bere luma belz, eta bere capa gorriarequin». Hume eta andric dantzán dabilte pocic Ibañetan. Arrotcic ez da Euscal-Errian, eta menditarren irrinciac allegatcen dira ceiruetaraño.

LABURPENA

Jose Erasun (1821-1894), Saldiasko semea eta bertako erretorea izan zenaren berriak ematen ditugu. *Asociación Euskara* elkarteko kidea, honen aldizkaria zen *Revista Euskara*-n lankidea eta euskal itzultzailea dugu Erasun. Bere lanak aurkezten ditugu hemen.

RESUMEN

José Erasun (1821-1894), natural de Saldías, Basaburúa Menor, y rector de su iglesia, es el objeto de este trabajo. Socio de la *Asociación Euskara*, colaborador en su revista llamada *Revista Euskara*, traductor al vascuence. Esto fue en resumen, y eso es lo que presentamos.

RÉSUMÉ

Nous présentons ici un résumé de la biographie relatant la vie et l'oeuvre de José Erasun (1821-1894), né à Saldías dans le Basaburúa Menor, où il fut curé. Il fut membre de l' *Asociación Euskara*, collabora à la publication *Revista Euskara* de cette association, et fit la traduction en langue basque de plusieurs ouvrages.

ABSTRACT

We offer a short biography relating briefly the life and works of Jose Erasun (1821-1894), parish priest in the small High-Navarrese village called Saldias. He belonged to *Asociación Euskara*, collaborated in the association's publication *Revista Euskara*, and translated several works to the Basque language.